

**1999KO APIRILAREN 29AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udalerria.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bederatzia

HILABETEA: Apirila

URTEA: Mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzia

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Jon Jauregi Bereziartua jauna

BILDUAK: Ana Isabel Asla Egialde
Arantza Aseginolaza Azkargorta
Emilio Vallés Pascual
Patxi Plazaola Muguruza
Jose Antonio Guirado Tristán
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Joxe Arotzena Irastortza
Jose Luis Elorza Mugica
Alfonso Segade Gonzalez
Pablo Parra Moreno
Jose Ignacio Insausti Mugica
Julio Herreros Serna
Eduardo Fernandez Cerdeiriña

ETORRI GABEAK: Idoia Arratibel Begué
Jose Maria Sarasola Villahoz

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1- AURREKO AKTA

1999ko otsailaren 25eko aktaren berri emanik, aho batez onartu da inolako zeresanik ez dagoelako.

2- ARAU SUBSIDIARIOAK

a- Arau Subsidiarioen lehen aldaketari buruzko irizpide eta irtenbideak onartzeko proposamena.

b- Arau Subsidiarioen lehen aldaketari hasierako onespina emateko proposamena.

Alkate (EAJ) jaunak hirigintza batzordeko bi proposamen horien berri eman du:

“ AURREKINAK

Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen lehen aldaketaren aurrekinari buruz 1999ko otsailaren 9ko hirigintza batzordeak egindako proposamenaren ondorioz eta Planeamendu Erregelamenduaren 125. artikulua dioena betez, aipatu dokumentua jendaurrean jarri zen: 1999ko martxoaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 1999ko otsailaren 26ko Egunkarian eta 1999ko martxoaren 3an iragarkiak argitaratu eta 30 egunez egon ziren ikusgai.

Legez ezarritako epean ez da inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu.

Horren ondorioz, Planeamendu Erregelamenduaren 125,3 artikulua xedatutakoa betez, Udalbatzarrari gehiengo absolutuarekin (ELOLEaren 47,3y artikulua) onartu beharreko ondorengo proposamena egiten zaio:

Lehenik. Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen lehen aldaketa lantzeko behar diren irizpide eta irtenbideak onartzea. Hauek honetan dautza:

Beasaingo 18 HAKo egungo hirigintza eremua birkalifikatzea. Horretarako, egun duen industria-erabilera orokorra ordezkatu egingo litzateke, zati batean etxebizitzak modu trinkoan eraikitzeke eta bestean udal-sistema orokorrak diren berdeguneak, gunee libreak eta kirol-hornidura zabala egiteko. Eremu horretako mugak aldatu egingo dira eta muga horiek orain sustatzen ari den hiri-aldaketa prozesuan inplikaturik dauden lursailei egokituko zaizkie. Trenbide sistema orokorra kendu egingo da.

Udal barrutiko hego-ekialdean dagoen eta egun zoru ez hiritagarria den birsailkapena. Horren xedea industria-erabilpenerako zoru hiritagarrian sektore berria mugatzea izango da. Horri 7. Sektorea deituko zaio.

Etxebizitzak eraikitzearekin batera bateragarriak diren erabileretan, hotel-erabilera ere jaso behar da.

Bigarren. Erabaki honen berri idazle-taldeari ematea, hasierako onespenerako dokumentua prestatu dezan.”

“ **AURREKINAK**

Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen lehen aldaketaren Aurrekinari buruz 1999ko otsailaren 9ko hirigintza batzordeak egindako proposamenaren ondorioz eta Planeamendu Erregelamenduaren 125. artikulua dioena betez, aipatu dokumentua jendaurrean jarri zen: 1999ko martxoaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 1999ko otsailaren 26ko Egunkarian eta 1999ko martxoaren 3an iragarkiak argitaratu eta 30 egunez egon ziren ikusgai.

Legez ezarritako epean ez da inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu.

Udalbatzarrari Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen lehen aldaketa lantzeko behar diren irizpide eta irtenbideak onartzeko proposamena egin zaio etaegindako bileran onartu dira.

Horren ondorioz eta Planeamendu Erregelamenduaren 125 eta ondorengo artikuluek diotenaren arabera, Udalbatzarrari ondorengo akordio-proposamena egiten zaio:

Lehenik. Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen lehen aldaketari hasierako onespena ematea, dokumentuak onartutako irizpide eta irtenbideak jasotzen dituelako.

Bigarren. Espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean eta horretarako iragarkia GAOn eta probintzian gehiena saltzen den egunkarian gutxienez argitaratuko da interesatuek alegazioak aurkeztu ahal izateko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, honako iritzi hauek azaldu dira:

Eduardo Fernandez (EB) jaunak: “Estoy de acuerdo ya que el hecho de que Indar se trasladase suponía recalificar ese terreno. Lo que si quería preguntar es si Igartza y el molion quedan fuera de este área o no. Por lo demás estoy de acuerdo.”

Alkate (EAJ) jaunak: “Pertenece al Sector 1.”

Julio Herreros (PP) jaunak: “Visto en comisión. Conforme.”

EA eta PSE-EEko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Andoni Antxia (HB) jaunak: “Abstenu egingo gara. Zati batean birkalifikazio honekin ados gaude, Indarreko baratze horretan ekipamenduak egin behar direlako, baina etxeak egitearekin ez gaude ados. Beraz, helburuarekin bat ez etortzeagatik abstenu egingo gara.”

Besterik gabe bozketa eginda eta emaitza hau lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ, PSE-EE, EA, PP, EB)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 3 (HB)

Horren ondorioz gehiengo absolutuarekin bi proposamenak onartu dira.

3- LURSAILAK MUGATZEA

Alkatea (EAJ) jaunak: “hirigintza batzordeak aztertutako gaia da. Gertatzen da gure jabetzako terreno batzuen aldameneko terrenoen titularrak etxe baterako sarbidea egin nahi duela. Horretarako gure terrenoaren zati bat komeni zaie eta beraiena den terrenoaren zati bat Udalari ematea proposatu digute. Plano batean erraza da ikusten. Guk hartzen dugun terrenoa ordeka da eta beraiei ematen diegun terrenoa berriz, aldapa. Eragiketa hau ez zaigu ezer koskatuko. Mugak aldatzen ez direnez, ez da truke-eskritura egingo. Proposatutakoa onartzen bada, lursail hauen mugaketa jasoko duen dokumentua eta planoak bi aldeek sinatu eta mugarriak jarriko dira.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da.

4- IZENDEGIA

Alkate (EAJ) jaunak, hirigintza batzordearen aldeko txostena izanik, euskara batzordeko proposamenaren berri eman du:

“ **GAIA:** 10. Poligonoaren izena eta auzoa

10. poligonoko lursailak (ikus plano) aztertu eta gai hauetan aditua den Joxe Zufiaurre Goia jn.aren aholkua jaso ondoren, ondorengoak adierazten dira:

- 10. poligonoa hartzen duen lursail osoa, Gudugarretakoa da (lehen herria orain auzoa) eta historian hala izan da. Beraz, GUDUGARRETA AUZOA jarri behar zaio helbidean.

- IRIGOIEN baserria Gudugarretakoa zen eta lursail horren erdialdean zegoen.

- ANGIO-ERROTA edo AINGERU-ERROTA, poligono horrek mendebaldetik duen sarreran zegoen, bazter batean beraz, eta ez zen Gudugarretakoa, Beasaingoa baizik. Gudugarreta eta Beasainen muga, AINGERU-ERROTAREN eta IRIGOIENEN artean zegoen, baina Gudugarretakoa IRIGOIEN zen ez AINGERU-ERROTA.

- Bestalde, izen hori oso egokia da herriaren goialdean dagoen lekuarentzat. Beste herri batzuetan izen hori egoteak ez du ezer nahasten, izan ere, GUDUGARRETA auzoa Beasainen bakarrik baitago. Gainera, AGIRRE eta AGERRE izeneko baserriak ere herri guztietan daude eta inon ez dira izen horiek kentzen hasten.

- Azken aldiaren Administrazioan euskaraz egin diren argitarapenetan, “polígono industrial” adierazteko, INDUSTRIALDEA terminoa erabiltzen da.

- Beraz, 10. poligonoari IRIGOIENGO INDUSTRIALDEA deitzea proposatzen da eta helbidea honako era honetan adieraztea:

IRIGOIENGO INDUSTRIALDEA
GUDUGARRETA AUZOA
20.200 BEASAIN

Gure toponimia historikoaren onerako, Udalak ofizialki hala onartu, erabili, errotulatu eta erabilpen zuzen hau behar adina zabaltzea eskatzen dugu.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

EB, PP eta Eko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

PSE-EEko ordezkariak: “Ados gaude, baina hemendik aurrera izen berriak ematerakoan irizpideak zabaltzeko eskatzen dugu. Aspaldi honetan aintzinako izena jarri ohi da, baina badaude beste irizpide batzuk, adibidez pertsonen izenak. Ez kasu honetan, hau poligono industrial delako, baina badaude beste kasu batzuk. Adibidez, Udaleko kultura arloko ordezkariak bere

momentuan Madrilera joan ziren Dulce María Loinatz andrea agurtzeko eta nik uste dut, gutxienez kaletxo bat edo beste tokiren bat bere oroigarri izateko merezi duela.”

HBko eta EAJko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

5- BIZTANLEEN ERROLDA

Alkate (EAJ) jaunak: “La consecuencia que se desprende de los datos obrantes en la renovación anual del padrón de habitantes es que bajamos en noventa habitantes. Aunque las causas de este descenso no aparecen identificadas, yo diría que en la línea que ya se apuntaba en el estudio que se hizo tras la renovación quinquenal, existen muchas bajas de gente que sigue viviendo en Beasain y que por razones varias se dan de alta en otros municipios. Se estima que la población de hecho en Beasain ronda los trece mil habitantes. Se detecta también que las promociones que ha habido este año de viviendas de baja intensidad y de cierto nivel en Lazkao, Idiazabal y Olaberria ha absorbido parte de la población, también se intuye que hay gente que ha ido a vivir a las viviendas de protección oficial de Lazkao y de Ordizia. En este sentido, el Ayuntamiento si tiene parte de culpa puesto que no hemos sido capaces de agilizar la promoción de la portería para mantener esa población y a su vez absorber parte de la población de la comarca, ya que las viviendas de protección oficial concertadas van a ir destinadas al área funcional del Goierri. Hay un 6% de gente joven que para la obtención de becas se ven obligados a empadronarse en el municipio donde van a realizar los estudios y luego está otro colectivo de personas que una vez llegada la fecha de jubilación vuelven a sus lugares de origen. Sin embargo hay un dato bastante interesante que es el de los nacimientos. Desde el año 97 se ve que el número de nacimientos va en aumento. El año 98 nacieron en Beasain diez niños más que el año 97 y en el año 97 nacieron siete más que en el 96. Este año a 31 de marzo en Beasain ya han nacido treinta niños, mientras que en el año 98, a 31 de marzo nacieron veintitres, y en el 97 a esta misma fecha nacieron diecisiete. Parece que la evolución se confirma y este un dato interesante a todos los niveles.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eduardo Fernandez (EB) jaunak: “Yo creo que el tema de la promoción de la vivienda si es un dato importante porque de hecho en estos cuatro años en Beasain no ha habido ningún tipo de vivienda social disponible y so ha

generado que bastantes personas hayan tenido que ir a otros municipios. El hecho que haya servido de reflexión y de autocrítica es bastante significativo. Nuestro grupo a lo largo de la legislatura ha ido insistiendo en ello y si ahora se reconoce esperemos que en los próximos cuatro años se reconduzca la tendencia que en estos momentos existe.”

PP, EA eta PSE-EEko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Andoni Antxia (HB) jaunak: “Egin den interpretazioaren arabera, kezkatzeko moduko datu bakarra Beasaingo gizarte-etxebizitza gabezia da, jendea beste toki batzuetara joatera behartzen dela. Aurten aurrekontuan milioi bateko kontusaila aurreikusi bada ere, argi dago gai honi arreta gehiago eskaini behar zaiola. Honekin lotuta galde dezakegu nola justifikatzen diren egiten ari diren etxebizitza berriak.”

Alkate (EAJ) jaunak: “HBko ordezkariak esandakoari buruz esan nahi nuke, guk planteatu dugun milioia ez dela gizarte-etxebizitzak egiteko baizik eta Beasainen bizi direnei eta beharra dutenei laguntzeko. Udalak esfortzu ekonomiko handia egin du gizarte-etxebizitzak aurrera eramateko, terrenoak erosi ditu ondoren Eusko Jaurlaritzari lagatzeko eta etxeak eraikitzeko gainera, Udalak gastu handiak egin ditu ingurua urbanizatzeko.”

Bozketa egin da eta aho batez onartu dira biztanleen udal-eroldaren urteroko berrazterketatik ondorioztutako kopuruak, hau da:

- Udalerriko biztanleria 1999ko urtarrilaren 1ean: 12.142 (6.053 gizonezko eta 6.089 emakumezko).

- Udalerriko egoiliarren altak:101 jaiotza, 187 udalerrien arteko bizileku aldaketa, 23 atzerritik atzerrirako aldaketa eta 8 gaizki egindako izenemateak eta ahaztutakoak.

- Udalerriko egoiliarren bajak: 82 heriotza, 325 udalerrien arteko bizileku aldaketa, 0 atzerritik atzerrirako aldaketa eta 2 gaizki egindako izenemateak eta ahaztutakoak.

- Helbide aldaketak udalerriko sekzioen artean: 164 (91 gizonezko eta 73 emakumezko).

6- HIZKUNTZ PLANGINTZA

Alkate jaunak hitza Patxi Plazaola (EAJ) euskara batzordeko lehendakariari eman eta proposamenaren berri eman du: “ **86/1997 Dekretuaren arabera, 2001-12-31 arteko Hizkuntz Eskakizunen plangintza-proposamena**”

DATUAK ETA BETEBEHARRAK

1) Eustatek argitaratutako datuen arabera, 1996ko erroldan, Beasainen 6.799 (% 56,245) euskaldun zeuden, 1.635 (% 13,525) ia-euskaldun eta 3.654 (% 30,22) erdaldun. Horrek, 86/1997 Dekretuaren arabera, gutxienez ere, $56,245 + \frac{1}{2} \cdot 13,525 = \% 63,01$ indizea ematen du eta dekretu bereko 17. artikulua arabera, % 45 eta % 70 arteko **c) indize-eremuan** sartzen da.

2) c) indize-eremu horrek, jendaurreko, gizarte-izaerako eta izaera orokorreko jardun guztietan administrazio-atal elebidunak (euskaraz ere funtzionatzen dutenak) jartzea eskatzen du eta aldi berean euskara erabiltzeko mikroplanak egitea Udal honek jada onartuta daukan Erabilpen Egitasmoan planifikatuta dagoen moduan.

3) Euskararen Normalkuntzako plangintzaldi honek, 2002-12-31 arte iraungo du. Beasaingo Udaleko langilegoari dagokionez (Udal-administraziokoa + Udalaren Fundazioetakoa), honekin batera doaz, IVAP-HAEE eta HPSk ontzat eman ondoren, Euskara-batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamen zehatza.

PROPOSAMENAK

LANGILEA	DAGOKION HIZK. ESKAK.	DERRIG.-DATA	LORTU HE.	ORDU KREDITU A	PROPOSAMENA
JOSE CABRERA ARENAS (1) (2)	2. HE				Bere lanpostuari derrigortasun-data ezartzea (1999-04-29) eta bera adinagatik salbuestea

ANTONIO GALLUDO ENCISO (1) (2)	2. HE				Bere lanpostuari derrigortasun-data ezartzea (1999-04- 29) eta bera adinagatik salbuestea
JOSE MANUEL PEREZ DORRONSORO (2)	2. HE	1991-07- 01			Adinagatik salbuestea
IÑIGO APAOLAZA APAOLAZA (3)	1. HE	1990-02- 01	2. HE		Bere lanpostuari 2. HE ezartzea
ANDONI SARRIEGI ESKISABEL					Bere lanpostuari 4 TG <i>(teknikari gaitua)</i> ezartzea
RECARDO ALVAREZ MATIAS (4)	2. HE	1999-12- 31	0	Oraindik bai	Bere horretan uztea
BELEN GARMENDIA MENDIZABAL (5)	3. HE	1992-07- 22		Ezartzek e	1999ko irailetik aurrera egunean bost orduko ikastaroa egitea
JESUS ANGEL GARCIA CHASCO (5)	2. HE	1994-07- 13		Ezartzek e	1999ko irailetik aurrera egunean bi orduko ikastaroak egitea.
JABIER ARRILLAGA BIGURIA (6)	3. HE	1994-12- 31	1. HE	840	Ikasten jarraitzea
M ^a JOSE IRIZAR GARCIA (6)	3. HE	1993-07- 01	2. HE	362	1999ko irailetik aurrera egunean

					ordu eta erdiko ikastaroa egingo du
--	--	--	--	--	--

LANGILEA	DAGOKION HE	DERRIG.-DATA	LORTU HE	ORDU KREDITUA	PROPOSAMENA
PAQUITA ARROYO GAGO (7)	2. HE	1992-07-01	1. HE	agortua	Derrigortasun-data 2001-12-31ra atzeratu, ordu-kreditu berria ezarri eta irailetik aurrera egunean bost orduko ikastaroa egitea
ANGEL AMOLATEGI DOMINGUEZ (7)	3. HE	1994-07-01	2. HE	agortua	Derrigortasun-data 2001-12-31ra atzeratu, ordu-kreditu berria ezarri eta irailetik aurrera egunean ordu eta erdiko ikastaroa egitea
AGUSTIN PZ. DE NANCLARES CASTELRUIZ (7)	2. HE	1994-07-01	4. HE	agortua	Derrigortasun-data 2001-12-31ra atzeratu, ordu-kreditu berria ezarri eta irailetik aurrera egunean ordu eta erdiko ikastaroa egitea
ANE LORE ERGUIN ARANBURU (8)	3. HE	1994-12-31	2. HE	agortua	Derrigortasun-data 2001-12-31ra atzeratu, ordu-kreditu berria ezarri eta irailetik aurrera egunean bi orduko ikastaroa egitea
IDOIA MUJIKA ZABALO (8)	3. HE		2. HE		Derrigortasun-data 2001-12-31n ezarri eta plangintzan sartzea
XABIER ZELAIA	3. HE				Derrigortasun-data

EZENARRO (8)					2001-12-31n ezarri eta plangintzan sartzea
AMAIA AROSTEGI EGUZKITZA (8)	3. HE		EGA		Derrigortasun-data 2001-12-31n ezarri eta plangintzan sartzea

Denboraldiko kontratazioak.

Udaleko sail guztiak erabilpen-planean sartuta daudenez eta 86/1997 Dekretuak denboraldiko kontratazioetarako ere euskara eskagarri egiten duenez, Udal-administratzaierako edo Musika Eskolarako egin behar den denboraldiko edozein pertsona-hautaketa eta kontratu egitean (bai denboraldiko lanetarako eta baita ordezkapenetarako ere), dagokion euskara-maila kreditatua eskatzea, euskara-batzordearen txostenean oinarrituta. Gauza bera eskatzea Antzizar Kiroldegiko Kirolaren Udal Erakundeari (KUEri) ere.

Oinarri formalik egiten ez direnetan, berriz, Gobernu Batzordeak 1999ko urtarrilaren 20ko erabakia bete beharko litzateke, hau da,

- E mailako eskulangileei, taldeburu ez direnean, hizkuntz mailarik ez eskatzea.

- E mailako eskulangileen taldeburu eta D eta C mailako beste edozeini, gutxienez, 2. hizkuntz eskakizuna eskuratuta izatea eskatzea.

- B eta A mailako langileei, gutxienez, 3. hizkuntz eskakizuna edo baliokidea eskuratuta izatea eskatzea.

Noizbait hemen azaldutako irizpideak betetzen dituen langilerik aurkituko ez balitz edo irizpideak jarraitzeko beste arazoren bat egongo balitz, Euskara Batzordeari idatziz jakinarazi eta berarekin batera kasua aztertu eta kasuan kasuko erabakiak hartuko lirateke.

(1) Derrigortasun-data berriak lanpostu batzuei.

Datuen eta betebeharren arloan 2. atalean aipatutako helburuak betetzeko, une honetan ezinbestekoa da derrigortasun-data jarri gabe duten udaltzaingoko 2 lanpostuei data hori jartzea, hau da, JOSE CABRERA ARENAS eta ANTONIO GALLUDO ENCISO jn.ek betetzen dituzten lanpostuei. Proposatzen den derrigortasun-data 1998-12-31 da. Hizkuntz Eskakizunaren maila lehendik jarria dute: 2.^a.

(2) Adina dela eta Hizkuntza Eskakizuna exigitetik salbuestekoak:

- JOSE MANUEL PEREZ DORRONSORO jn., (derrigortasun-data: 1991-07-01), 1990eko plangintzaldian sartua, baina, euskalduna delako eta bere lan-ordutegia tarteko zelako ikastera bidali gabea. 1942-01-29an jaioa da, hots, plangintzaldi hura hastean 48 urte zituen (45 baino gehiago). Hori dena kontuan hartuta, hizkuntz eskakizuna betetzetik salbuestea proposatzen da. (2. H.E.)

- ANTONIO GALLUDO ENCISO jn., (derrigortasun-data: 1998-12-31), 1997ko plangintzaldian sartua. 1942-03-29an jaioa da, beraz, plangintzaldia hastean 56 urte zituen (45 baino gehiago). Hori eta bere osasun-egoera kontuan hartuta, hizkuntz eskakizuna betetzetik salbuestea proposatzen da. (2. H.E.)

- JOSE CABRERA ARENAS jn., (derrigortasun-data: 1998-12-31), 1997ko plangintzaldian sartua. 1946-01-16an jaioa da, beraz, plangintzaldia hastean 52 urte zituen (45 baino gehiago). Hori eta bere hizkuntz ikasketarako gaitasuna kontuan hartuta, hizkuntz eskakizuna betetzetik salbuestea proposatzen da. (2. H.E.)

(3) Mailak aldatzeko proposamenak.

- IÑIGO APAOLAZA APAOLAZA jn. aren lanpostua, 1990-02-01ean, maila eta derrigortasuna jarri zitzaionean, kale-garbitzaile eta hilobiratzailarena zen eta derrigortasun-data eta guzti izan arren 1. Hizkuntz Eskakizuna ezarri zitzaion. Orain aldiz, 1998-10-01ean onartutako plantilaren arabera, lanpostu hori mantenimendukoa da. Horren ondorioz eta lan-molde berriak hala eskatzen duenez, mantenimenduko lanpostuari 2. Hizkuntz Eskakizuna eskatzea proposatzen da. Iñigo Apaolaza Apaolaza jn.ak, jada lortua dauka 2. Hizkuntz Eskakizuna.

- 1997ko Dekretuak dioenarekin ados HAEEtik idazkariari adierazi diotenaren arabera, ITZULTZAILE ETA EUSKARA ZERBITZUKO ARDURADUNAREN Hizkuntz Eskakizunaren maila, 4. TG (*teknikari gaitua*) da, 5. mailarik jada ez dagoelako. Beraz, aipatutako postu horrentzat 4. TG jarriko da.

(4) Oraingoz bere horretan uztekoak.

- RECAREDO ALVAREZ MATIAS jn., udaltzaina, (jaiotza-data: 1953-02-15). Derrigortasun-data 1999-12-31 du. Kreditua badu baina ez du ikasten jarraitzeko adorerik.(2. H.E.)

(5) Derrigortasun-data izanik, behin-behinekotasunagatik orain arte planean sartzerik izan ez dutenak eta orain, Dekretu honen arabera sartu eta ikasketak eginda maila frogatu beharrekoak:

- BELEN GARMENDIA MENDIZABAL and. (derrigortasun-data: 1992-07-22) (3. H.E. dagokio).
1999ko irailetik aurrera egunean bost orduko ikastaroa egingo du.

- JESUS ANGEL GARCIA CHASCO jn. (derrigortasun-data: 1994-07-13) (2. H.E. dagokio).
1999ko irailetik aurrera egunean bi orduko ikastaroa egingo du.

(6) Lehendik kreditua izanik, ikasketak egin eta maila lortu beharrekoak:

- JABIER ARRILLAGA BIGURIA jn., Musika Eskolako irakaslea, (derrigortasun-data: 1994-12-31) 1. H.E. du eta 3. H.E. dagokio. 840 orduko kreditua du eta ikasten ari da.

- M^a JOSE IRIZAR GARCIA and. (derrigortasun-data: 1993-07-01) 2. H.E. du eta 3. H.E. dagokio. 362 orduko kreditua du. 1999ko irailetik aurrera egunean ordu eta erdiko ikastaroa egingo du (ikus beherago Angel Amolategi eta Agustin Pz. de Nanclares).

(7) IVAPera derrigortasun-data atzeratzeko eskaera egin eta kreditu berria emanda ikasketak osatu beharrekoak.

- PAQUITA ARROYO GAGO and. (derrigortasun-data: 1992-07-01) 1. H.E. du eta dagokion 2. H.E. eskuratzeko 500 ordu beharko lituzke. Proposatutako derrigortasun-data berria: 2001-12-31. Egunean bost orduko ikastaroa egingo du irailetik aurrera Lazkaoko Maizpiden edo inguruko beste euskaltegiren batean.

- ANGEL AMOLATEGI DOMINGUEZ jn. (derrigortasun-data: 1994-07-01) 2. H.E. du eta 3. H.E. dagokio. Proposatzen den derrigortasun-data berria: 2001-12-31.

- AGUSTIN PZ. DE NANCLARES CASTELRUIZ jn. (derrigortasun-data: 1994-07-01) 2. H.E. du eta 4. H.E. dagokio. Proposatzen den derrigortasun-data berria: 2001-12-31.

Angel Amolategi 3. HE eskuratzeko 500 ordu eta Agustin Pz. de Nanclares 4. HE eskuratzeko 900 ordu beharko lituzkete. Hauen laneko eta egoera pertsonal bereziak kontuan hartu dira eta berentzako proposamen berezia egin dugu: udal-euskaltegiko irakasle batek ordu eta erdiko eskola emango die egunero bi horiei (agian beste hirugarren bati ere) irailetik aurrera.

- ANE LORE ERGUIN ARANBURU and., Musika Eskolako irakaslea,(derrigortasun-data: 1994-12-31) 2. H.E. du eta dagokion 3. H.E. eskuratzeko 500 ordu beharko lituzke. Proposatzen den derrigortasun-data berria: 2001-12-31. Egunean bi orduko ikastaroak egingo ditu irailetik aurrera Donostialdean.

(8) Auzi bidez kontratu finko etena lortu duten Musika Eskolako 3 irakasleei derrigortasun-data jarri eta plangintzan sartzea.

- IDOIA MUJIKA ZABALO and. (3. H.E.) Proposatzen den derrigortasun-data: 2001-12-31 (2. HE badu)

- XABIER ZELAIA EZENARRO jn. (3. H.E.) Proposatzen den derrigortasun-data: 2001-12-31.

- AMAIA AROSTEGI EGUZKITZA and. (3. H.E.) Proposatzen den derrigortasun-data: 1998-12-31 (EGA badu)

(9) Antzizar kiroldagiko langile finkoek lortuak dituzte dagozkien hizkuntz eskakizunak.

Jarraian Patxi Plazaola jaunak ondorengoa esan du: “Dokumentu hau HPSn aurkeztu behar da onartzeko eta bertan Beasaingo udal-langileak euskalduntzeko 2002. urte arteko plangintza adierazten da. Estatistikari dagokionez, gure langilegoak euskararen derrigorrezko maila baino altuagoa du. Hala ere, hemen proposatutako plangintza egiterakoan, errealitatea hartu dugu kontuan. Langileen egoera aztertu eta lanpostua eta langilea bereiztu egin ditugu. Alde batetik lanpostuei dagozkien hizkuntz eskakizunak mantendu dira, baina langile batzuei ez zaie derrigortasuna eskatuko (adinagatik etab.). Adibidez, José Cabrera, Antonio Galludo eta Jose Manuel Perez Dorronsoro. Beste aldetik, bi langilek aldaketak izan dituzte. Langile horiek, Iñigo Apaolaza eta Andoni Sarriegi dira. Langile batzuk badaude, baita ere, bere garaian derrigortasuna zutenak eta, kredituak agortu ondoren, beste kreditu batzuk lortzeko aukerarik izan ez dutenak. Dekretu honen bidez, beste kreditu batzuk lortzeko aukera izango dute. Kasu honetan Paquita Arroyo, Angel Amolategi, Agustín Perez de Nanclores eta Ane Lore Ergüin andrea daude. Se plantean cursos más asumibles y refuerzos posibles y que pueden permitir que se obtengan los niveles que antes no se pudieron obtener. Creemos que es un plan realista y que en el 2002 podemos tener estos trabajadores con un nivel suficiente de euskera, teniendo en cuenta siempre que la relación con el ciudadano es lo que se prima. El esfuerzo que se hace supone por una parte una subvención, por otra el departamento de personal del Ayuntamiento aporta un dinero y finalmente hay que mencionar el esfuerzo en la formación que hace el propio trabajador.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

EB, PP eta EAko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Jose Luis Elorza (PSE-EE) jaunak: “Plangintza onartu egin behar dugu, baina aurreratu egin nahi dugu datorren legealdian guk aldaketa batzuk planteatu behar ditugula, ez udal-plangintzan bakarrik, baita euskal legeak aldatu behar dituen elementu batzuetan ere. Lanpostu batzuei eskatzen zaien maila gehiegizkoa dela iruditzen zaigu. Langileei euskara hobetzeko filosofiarekin ados gaude, baina Beasainen eta beste toki batzuetan ere euskara erabiltzen den moduarekin gu ez gaude ados. Udalean eta udal-patronatuetan lanpostu berriak sortzen direnean, euskara baldintza gisa planteatzen da. Gu horrekin ez gaude ados. Udal hau osatzen dugun zinegotziok, adibidez, erdiek ez luke zenbait lanpostuetarako aukerarik izango. Beraz, ez da euskara zentzu horretan erabili behar, nahiz eta gero langile horri Udalaren aldetik behar duen laguntza eskaini euskara menperatzeko.”

Arrate Izagirre (HB) andreak: “Puntu horrekin gu ados gaude. Epea bukatzen denean, aurreikusitakoa bete den edo ez jakiteko azterketa bat egingo genuke eta bete ezean arazoa zein den aztertu beharko litzateke erabaki bat hartzeko. Zenbaitentzat bigarren plangintza da. Badakigu batzuk kanpoan gelditu direla eta beren egoeratik ez dela posible. Hori neurri batean onartzen dugu, baina beste arlo batzuetan ez dugu onartzen. Udalak dirua gastatu du eta Udalak ezin du urtero diru pila bat gastatu horretarako arrazoi sakonik ez badago. PSE-EEko ordezkariak esaten duenari aurre egingo diogu, gu bere planteamenduarekin ados ez baikaude. Gure herria gutxienik elebidun izan behar badu, baldintza derrigorrezkoa da.”

Patxi Plazaola (EAJ) jaunak: “Eskertzekoa da denon baietza. PSE-EEko ordezkariak aipatu duen kasua argi daukagu eta gauza bat lanpostua dela eta bestea pertsona esan dugu. Pozten naiz PSE-EEkoek beren jokabidea zein izan behar duen aurreratu duelako eta bere garaian azalduko dugu gre jarrera horren aurrean. Dena dela, berdintasun hitza oso erraz aipatzen dela iruditzen zait. Berdintasunaren izenean ni europarra naiz, baina ezin izango dut Alemanian lan egin. Gauzak bere testuinguruan kokatutakoan hitz egingo dugu.”

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

7- INBENTARIOA

Alkate jaunak, Jose Antonio Guirado Hazienda batzordeburuari hitza eman dio eta honek hazienda batzordeko proposamenaren berri eman du:

“ 1998ko abenduaren 31ko datarekin egindako inbentarioaren zuzenketa onartzea proposatzen dio Hazienda Batzordeak Udalbatzarrari.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren talde guztietako ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“ ONDASUNEN INBENTARIO ETA ERREGISTROAREN ZERRENDA

	Erre.Histo.Ko s	Erre.Meta.Amo.	Neto Kontablea
ONDASUN HIGIEZINAK	<u>1.911.782.11</u>	<u>358.973.306</u>	<u>1.552.808.811</u>
ERAIKUNTZAK	1.226.778.76 ⁷	322.190.796	904.587.966
TERRENOAK	105.272.358 ²	0	105.272.358
JOLASTOKIAK	312.669.847	0	312.669.847
BIDEAK	187.387.570	0	187.387.570
LANDA LURSAILAK	10.475.607	0	10.475.607
AZPIEGITURA	69.197.973	36.782.510	32.415.463
ERRENTA ESKUBIDEAK	<u>30.300.000</u>	<u>0</u>	<u>30.300.000</u>
BALORE MOBILIARIOAK	<u>3.049.000</u>	<u>0</u>	<u>3.049.000</u>
IBILGAILUAK	<u>10.248.677</u>	<u>7.889.637</u>	<u>2.359.040</u>
MOBLERIA	<u>237.032.533</u>	<u>111.668.021</u>	<u>125.394.512</u>
ONDASUN ETA ESKUBIDE BIHUR.	<u>58.727.315</u>	<u>0</u>	<u>58.727.315</u>
GUZTIRA	<u>2.251.139.64</u> ²	<u>0</u>	<u>1.713.911.363</u>
ERAIKINAK ERABIL LAGAPENEAN	<u>46.502.022</u>	<u>0</u>	<u>46.502.022</u>
	<u>2.297.641.66</u> ⁴	<u>478.530.964</u>	<u>1.760.413.385</u>

8- EGUNEKO ZENTROA

a- Eguneko Zentroko zainketa-zerbitzua kontratatzeko baldintza plegua onartzeko eta deialdia egiteko proposamena.

Alkate jaunak José Luis Elorza ongizate batzordeburuari hitza eman eta honek honela dio: “Dakizuen zerbizuaren kudeaketa kontratatu egin behar da eta eskatzen diren baldintzak pleguan jaso dira. Hirugarren eta hamargarren puntuak bakarrik aipatu nahi nituzke. Hirugarren puntu esaten da lehiaketa-oinarria, 2.050 PTA orduko eta zaintzaileko izango dela. Kopuru hori ezartzeko, beste herrietan zerbitzua nola egiten den aztertu dugu eta eguneko zentroak kudeatzen dituzten enpresei aurrekontuak eskatu dizkiegu. Hamargarren puntu berriz balorazio irizpideak finkatzen dira.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eduardo Fernandez (EB) jaunak: “Nuestro grupo piensa que la concesión administrativa no es el mejor medio para poner en marcha el servicio, pues eso puede dar lugar a un precarización del mismo ya que los puestos de trabajo que se vayan a crear van a ser de carácter temporal y no se va a fomentar una estabilidad laboral que creemos necesaria para que el nivel de calidad sea óptimo. Ese es uno de los motivos por los que vamos a votar en contra. Respecto al pliego decir, que en los aspectos a valorar y concretamente en lo relativo a la experiencia, puede suceder que se valore dos veces los mismo y eso va a traer como consecuencia que la concurrencia de empresas al concurso sea bastante restringida. Opinamos que hubiera sido mejor optar por otra fórmula, estableciendo por ejemplo, un período de prueba de seis meses. Mi voto será en contra.”

PP eta EAko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Andoni Antxia (HB) jaunak: “Alde batetik iruditzen zaigu ondo ez dagoela langileei eskatu behar zaien perfila ez finkatzea, zeren eta denok dakigu norentzako den zerbitzu hori. Beste alde batetik gaizki iruditzen zaigu zerbitzu hori Udalak berak ez ematea. Ez zaigu iruditzen beraz, bidea azpikontratazioa denik. Bi arrazoi horiek direla eta, gure botoa ere aurkakoa izango da.”

Ana Asla (EAJ) andreak: “Proiketu berri bat sortzerakoan mota askotako arazoak aztertzen dira. Zerbitzu horren beharra, ekipamendua, kokapena, antolamendua, lan egin behar duten pertsonen hautaketa, finantzaketa-maila

eta abar. Beste kasuetan bezala, horietako atalaren bat hobeto egin daitekeela pentsatzea posible izango da orain ere, baina aurkezten den proiektua gure herritarrek egiten duten eskaerari erantzuteko egokia dela pentsatzen dugunez, martxan jartzeari gure onspena emango diegu.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE) jaunak: “Sobre el tema de la gestión indirecta decir que también otros servicios del Ayuntamiento se gestionan de esta manera y hasta ahora los resultados han sido satisfactorios. Sólo quiero reseñar dos elementos comparativos en lo que se refiere a bienestar social, esto es, la residencia Arangoiti de Beasain y la residencia de Ordizia. En cuanto a calidad de servicio no creo que nadie pueda plantear que la de la residencia Arangoiti sea peor. En estos momentos la residencia Arangoiti disfruta de una economía saneada y sin embargo en Ordizia tienen graves problemas económicos a los que tiene que hacer frente el Ayuntamiento. Cualquier trabajador preferiría ser un funcionario municipal que ser un trabajador de una empresa de este tipo. Ahora bien, los servicios sociales que se ofrecen, ¿son mejores por engrosar el capítulo uno?. Esta es una pregunta que dejo en el aire. Respecto a las condiciones que se exigen se ha hecho un esfuerzo para no primar a una determinada empresa. Es probable que las empresas de cierta dimensión tengan más probabilidades porque tienen más experiencia. Se valora la experiencia en servicios de ayuda a domicilio, pero no necesariamente tienen que ser institucionales. También se valora el tema de los pisos tutelados, pero hay que tener en cuenta que ninguna gran empresa cuenta con pisos tutelados. Hemos tratado de que las opciones sean bastantes abiertas.

Sobre el tema del euskera indicar que se está contratando a una empresa y se exige que los ciudadanos hablen con fluidez en euskera. HBk planteatzen du hori frogatzeko proba batzuk egitea. Nik uste dut edozein momentuan kontratua bertan behera utzi litekeela baldintza betetzen ez badute.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta honelako emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ, PSE-EE, EA, PP)

Aurkako botoak: 4 (HB, EB)

Abstentzioak : 0

Horren ondorioz gehiengo absolutuarekin eguneko zentroko zainketa-zerbitzua kontratatzeke baldintza plegua onartu da eta deialdia egitea erabaki da.

b- Beasaingo eguneko zentroko araudiari hasierako onespena ematea.

Alkate jaunak Jose Luis Elorza jaunari hitza eman eta honek honela dio:

“Eguneko zentroa arautzeko araudia onartu behar da. Araudi horretan azaltzen da helburua, kudeaketa zer motatakoa izan behar duen, Udalak, teknikariek, agureek eta enpresak bete behar dituzten baldintzak eta abar.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eduardo Fernandez (EB) jaunak: “En este punto me voy a abstener.”

PP, EA, PSE-EE eta EAJko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

HBko ordezkariak esan du abstenitu egingo direla.

Bozketa egin da eta honelako emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ, PSE-EE, EA, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak : 4 (HB, EB)

Horren ondorioz gehiengo absolutuarekin erabaki hau hartu da:

“Lehenik. Beasaingo eguneko zentroko araudiari hasierako onespena ematea.

Bigarren. Espedientea jendaurrean jartzea 30 egueko epean iradokizunak aurkeztu ahal izateko.”

9- GKE. Garatzeko bidean dauden herriekiko lankidetzaren programaren finantzaketa oinarriak.

Alkate jaunak Jose Luis Elorza, gizarte ongizate batzordeburuari hitza eman eta honek honela dio: “Hau urtero kaleratzen den deialdia da. Dirukopurua iazko urtearekiko aldatu egin da. Aurten 9.725.000 pezeta dira eta lehenengo aldiz %7ko kopurua bete dugu. Baldintzak berdinak dira baina, Nikaraguako Estelí eta Somoto herrietan berreraikitze-lanetarako proiektuak baloratu egin dira. Honekin batera esan behar dut, Esteliko alkatea aurki etortzeko dela eta Beasaina ere etortzeko kudeaketak egiten ari gara, alde batetik, Udalak orain dela gutxi egindako kanpainan jasotako hamabost milioi entregatzeko eta bestetik harremanak estutzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

EB, PP, PSE-EE eta HBko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Ana Asla Egialde (EAJ) andreak: “Legealdi honen hasieran %7a lortzea sartu genuen helburuen artean. Munduan dauden beharrei erantzuteko kopuru hori sinbolikoa dela uste arren, beasaindar guztientzat poztekoa da helburu hori lortzea. Onartu egiten dugu proposamena.”

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

10- BEKAK

Alkate jaunak Jose Luis Elorza, gizarte ongozate batzordeburuari hitza eman eta honek honela dio: “Araudiari buruz ez dut ezer zehatzik aipatuko. Bakarrik esan nahi dut, proposamen zehatza datorrela. Hau da, 9.750.000 pezetatik, 1.225.000 pezeta bekadunen finantzaketarako direla. Lehengo urtearen eskarmentua aldekoa izan zen eta horren ondorioz, berriro ere deialdi berri bat egingo da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eduardo Fernandez (EB) jaunak: “Estoy de acuerdo, pero creo que habría que contemplar mejor las condiciones en las que van, la relación que van a tener con la ONG, etc. “

PP, EA, PSE-EE eta HBko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Ana Asla (EAJ) andreak: “Iaz egon ziren gazteekin hitz egin ondoren, izan zituzten hutsuneak betetzen saiatuko gara.”

Bozketa egin da eta aho batez onartu dira garatze-bidean dauden herrietan lankidetzaz lanetan arituko diren gazteentzako laguntzak emateko oinarriak. 1999.

11- ERAKUNDE ADIERAZPENA. Kanpo-zorra, betiko zorra kanpainari atxikitzea.

Alkate jaunak Jose Luis Elorza, gizarte ongozate batzordeburuari hitza eman eta honek honela dio: “Este es un tema que tendría que haber venido

con más antelación porque el plazo de la campaña finalizaba el 15 de abril. Como el objeto de la campaña para nada tiene plazo de finalización, sino que es un problema que desgraciadamente va a durar mucho tiempo, por eso se presenta al Pleno.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eduardo Fernandez (EB) jaunak: “Voy a votar a favor, pero hay que indicar que muchas de las instituciones que apoyan la campaña, luego no condonan la deuda y se produce un contrasentido.”

PP, EA, HB eta EAJko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

12- MUSIKA ESKOLA

a- Plantila, lanpostuen zerrenda eta enplegu eskaintza publikoa onartzeko proposamena.

b- Ondorengo plazak hornitzeko oinarriak onartzea:

- Klarineteko irakaslea.
- Perkusioko irakaslea.
- Tronpetako irakaslea.

Alkate jaunak, Arantxa Aseginolaza Azkargorta musika eskolako lehendakariari hitza eman eta honek honela dio: “Plantilan proposatzen diren aldaketak, betidanik musika eskolak langilegoaren aldetik izan duen arazoari konpontzeko egin dira. Bigarrenengo puntuan berriz, aipatzen diren hiru instrumentuen irakasleen finkotasuna lortzeko lanpostuak sortu dira.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, talde guztietako ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz bozketa egin da eta aipatutako bi puntuak onartu dira.

13- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

OBRAS ENCAUZAMIENTO

Eduardo Fernandez (EB) jaunak: “Respecto a las obras de encauzamiento quería conocer si la intención es de mantener el puente en fiestas o no, y como se va a dejar el paseo que discurre paralelo a los bares.”

Alcalde (EAJ) jaunak: “El puente se va a mantener en fiestas, pero probablemente haya que derribarlo inmediatamente de terminadas las fiestas. Respecto a la calle Zaldizurreta, el muro estará hecho, el vial estará relleno de material y preparado para asfaltar. La duda es si se va a poder asfaltar antes de fiestas o no.”

AGRADECIMIENTO

Alfonso Segade (PSE-EE) jaunak: “Entendiendo que este es el momento adecuado para hacer unas reflexiones que no corresponden a otras situaciones. Espero que la Sra. Arrate Izagirre me permita traer a colación una frase gallega que es mi lengua materna, y que traducida al castellano dice así: “No se debe confundir la tarta de Santiago con la caca de vaca”. En primer lugar quiero decir oficialmente que yo no voy a repetir como concejal. Es un tema que no lo he comentado mucho. La primera persona que lo supo fue el alcalde, mi buen amigo, Jon Jauregi. El segundo fue el corresponsal de Beasain, que en una entrevista le hice notar que no me iba a volver a presentarme, aunque no me lo creía. Doce años voy a hacer y creo que es un tiempo más que suficiente, porque las ideas se terminan y si uno sigue se convierte en un funcionario, y eso es un mal síntoma para un político, y lo mejor es retirarse, descansar, renovarse, etc. Eso no quiere decir que no vuelva, pero en principio me voy. Hay gente que va a intentar repetir lógicamente, es legítimo. Otra cosa es que lo consigan. Los ciudadanos son muy inteligentes y no aceptan muy bien los bailes de salón. A otros que llevan mucho tiempo en este Ayuntamiento, la universidad de la vida seguramente no les ha enseñado dos de los elementos importantísimos que son la libertad y el respeto a los demás. Permitidme que tenga la osadía de poder equivocarme. Quisiera agradecer a todos los grupos políticos, absolutamente a todos, que en el tiempo que he dirigido la comisión de gobernación, que dicho sea de paso haría la observación al próximo alcalde para que le cambie el nombre, y he necesitado apoyo en situaciones delicadas lo he tenido. En este Ayuntamiento en los doce años me lo he pasado muy bien, y además me va la marcha. No he tenido que hacer historias extrañas para llegar a no sé donde, sino que mi único y sencillo objetivo ha sido poner lo mejor de mi mismo para dar el mejor servicio al pueblo de Beasain. No he tenido más aspiraciones. Por ello quiero agradecer al alcalde Jon Jauregi el que tuviera la deferencia de adjudicarme una presidencia tan delicada, ya que lo normal en una alcaldía es que lo asuma alguien de su equipo. Jon muchísimas gracias por haber confiado en mí. Hasta siempre.”

Alkate (EAJ) jaunak: “Eskerrik asko.”

Arantxa Aseginolaza (EAJ) andreak: “Simplemente quisiera comentar, a pesar de los rumores que circulan, que no hay cambio de fechas ni de programación para las fiestas. Os invito a todos a los actos oficiales y que lo paseís lo mejor posible.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko zortziak eta hogeita hamabostean amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta ziurtatut dut.